

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko abenduaren 22an aurkeztu nahi du

Fiona Tan: *Ekialdeari begira, galduta*

Fiona Tan: *Ekialdeari begira, galduta*

- Datak: 2016ko abenduak 22 – 2017ko martxoak 19
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2016ko abenduak 22 eta 2017ko martxoak 19 bitartean, Fiona Tan-en *Ekialdeari begira, galduta* (*Disorient*, 2009) obrak Espainian izango duen estreinaldia aurkeztuko du Guggenheim Bilbao Museoa. Pieza hau bederatzigarrena da Film & Video aretoan programatutakoen artean, 2014an aretoa lehen aldiz zabaldu zenetik ikus-entzunezko artelanak —bideoak, bideo-instalazioak eta irudiak mugimenduan— erakusteko.

Fiona Tanek (Sumatra, 1966) 2009an sortu zuen *Ekialdeari begira, galduta* Veneziako 53. Bienaleko Herbehereetako pabiloiarako ekoiztu zuen 2009an. Pabilioi horretan garatzen da filmaren zati bat eta bertan grabatu zen. Izan ere, artelanean Veneziaren XIII. eta XVI. mendeen arteko historia islatzen da: orduan Asian aurkitu berri ziren herrialdeekiko komertzioaren ardatz estrategikoa zen. Fiona Tanen filmak “Ekialde Handi” baten ametsa gogora ekartzen digu, Marco Polok bere *Munduko mirarien liburu* ezagunean adierazitakoa. Orain dela zazpi mende gertatutako istorioen bilduma horrek amestutako Ekialde miresgarri baten irudia sorrarazi zuen Europan: milaka urteko hainbat eta hainbat kultura jasotzen zituena, Europan estreinako aldiz ezagutzera emandakoa. Topiko bat zen, mendeetan herrien eta baliabideen esplotazioa ezkutatzeko erabili izan zena, gainera. Eta, hain zuzen ere, Fiona Tanen instalazioa osatzen duten elementuetan jasota geratu da paradoxa hori.

Ekialdeari begira, galduta aurrez aurre ipinitako bi pantailak osatzen dute. Pantaila horiek elkar komunikatuta daude, erakusten diren objektuen eta bien artean kokatutako bozgorailu baten bitartez —bertatik gizonetzko ahots batek Marco Poloren bidaien hainbat pasadizo kontatzen dizkigu ahopean—. Pantaila handiaren, *travelling* geldo baten bidez, Ekialde Urrunera egindako bidaiak eta espedizioak gogora ekartzen dizkiguten oroigarri eta trofeo-sorta anakroniko bat erakusten zaizkigu: animalia exotiko disekatuak, urrezko estatuatxoak, oihal bikainak, portzelana fina, espeziak eta amuletoak; baina baita, ustekabeak, apaingarri modernoak, hainbat herrialdetako txanponak, telebistak, eta Veneziako Bienaleko Herbeheretako Pabiloiaren beraren maketa bat ere. Objektu horiek guztiak biltegi bakarti batean ageri dira, Mendebaldeko pertsonaia misterioitsu eta gogoetatsu batek —mendebaldekoa eta urre koloreko tunika batez jantzita— zaintzen dituen bitartean.

Pareko pantailan, oraingo eguneroko irudiak erakusten zaizkigu Asiako kontinenteko zenbait lekutan, ustez esploratzaile veneziar ospetsuak bisitatutakoetan. Leku horietan, biztanleak ahal duten moduan bizi dira kontaminazioan, pobrezian eta esplotazioan murgilduta, indarkeria eta kaosa nagusi diren giro batean. Irudi horiek Afganistanen, Iraken eta Txinan filmatutakoak dira eta, zeharka, aurreneko

pantailako biltegi jori horretan jasotako luxuzko ondasunak nola sortu, bildu, bidali eta instalatu ziren erakusten digute. Obra honen izenak iradoki bezala, bi kontakizun horiek elkarren ondoan jartzeak —ez dute itxuraz batere zerikusirik baina estu lotuta daude— galduta egotearen sentsazioa sorrarazten du ikusleengan.

Fiona Tanek memoria kulturalaren eta mito modernoaren agertoki eta artxibategi bihurtzen du biltegia, eta era horretan, Marco Poloren Asia legendarioa berreraikitzen du, aldi berean, Asiako kontinenteari buruz idatzi ez den memoria berreskuratuz eta iruditegi hori izan zitekeena asmatuz.

Fiona Tan

Fiona Tan, 1966an jaioa Pekanbaru hirian, Sumatra (Indonesia) uhartearen erdian, Herbehereetan bizi da 1988az gozotik. Aita txinatarra eta ama australiarra dituen artista honek “atzerritar profesional” bat dela dio bere buruaz, jaiotzez emigrantea, eta bere lan ugariaren inspirazio-iturri bihurtutako gertakaria. Bere lanetan zinema, bideoa eta argazkilaritza konbinatzen ditu kolonia osteko kultura eta globalizio garaiko identitateen eraketa aztertzeko, Ekialde kolonialari lotutako mitoetan eta kondairetan oinarrituta.

Fiona Tan artista gailenetakoa da gaur egun zine eta bideo arloan. Ekialde kolonialari lotutako mitoak eta kondairak oinarri hartuta. Artista hau artxibategiko filmetatik abiatuta sortutako lan-sail batekin eman zen ezagutzera. Horietan, behatzailearen eta behatuaren rolak zalantzan jartzen ditu, iragan kolonialaren mitoei desafio eginez. Identitatearen, denboraren eta memoriaren inguruko gogoeta konstante bat da Fiona Tanen lanean. Bere erretratuek konbinatu egiten dituzte testuinguru soziologiko eta historiko-artistikoa eta erretratatuak ikusten ditugun moduan denborak duen eraginari buruzko gogoeta.

Fiona Tanek hainbat bakarkako eta taldeko erakusketatan parte hartu izan du, besteren artean, Kasselgo Documenta-n eta Sao Paulo, Istanbul, Sidney eta Yokohamako Bienaletan. 2009an, Tanek Herbehereak ordezkatu zituen Veneziako Bienalean. Bakarkako erakusketa garrantzitsuenen artean aipatzekoak dira Chicagoko MCA, Vancouver Artgallery, Washington Sackler Galleries-ak, Suitzako Aargauer Kunsthaus eta Frankfurtoko MMK, non bere obraren atzera begirako handi bat dagoen ikusgai 2017ko urtarrilaren 16ra arte. Lortu dituen sarien artean daude J.C.van Lanschot Prize eskultura-saria 1998an eta Infinity Award for Art 2004an. Gainera, bere zenbait lan izen handiko bilduma publiko eta pribatuetan daude, besteak beste, Londresko Tate Modern, Amsterdamgo Stedelijk Museum, New Yorkeko New Museum eta Parisko Centre Pompidou-n.

Azaleko irudia:

Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (Disorient, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014 2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Fiona Tan: *Ekialdeari begira, galduta*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (*Disorient*, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014 2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016



Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (*Disorient*, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014

2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016



Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (*Disorient*, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014 2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016



Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (Disorient, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014

2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016



Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (Disorient, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014

2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016



Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (Disorient, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014

2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016



Fiona Tan

Ekialdeari begira, galduta (Disorient, 2009)

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna

17 min eta 19 min 30 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014

2014.120

© Fiona Tan, VEGAP, Bilbo, 2016

